


Errege bat, bi mapa

Espainiako koroak, "talentu-biltzaile" trebea izanik, Magallaesen proiektuaren alde egitea erabaki zuenean, Carlos I.ak larruzko kutxa eder bat jaso zuen. Hura irekitzean, monarka gazteak mundu mapa bat aurkitu zuen bertan ("Magallaesen mapa" edo Kunstmann IV planisferioa) zeinetan Molukak espainiar eraginpeko eremuan irudikatzen ziren, abiatzear zuten eginkizunaren zilegitasuna aldarrikatu nahiko balute bezala.



Bitartean, Sebastian Alvaresek, Portugalgo Manuel I.a erregeak Sevillan zuen faktoreak, gutun bidez jakinarazi zion hari espainiarrek Portugalgo lurraldean sartu gabe Espezieren Uharteetara iristeko ibilbidea ba zela eta maparen berri eman zion. Espezieren Uharten monopolioa arriskuan zegoela ikusita, Manuel I.ak espedizioa oztopatzeko amarrua prestatu

zuen: bere ezkongai zen Austriako Leonorrentzako atlas bat egiteko agindu zuen (Miller Atlas ospetsua) ezkontza-opari gisa, zeinetan mapamundiak Amerikako lurraldeak Asiakoekin itsatsita irudikatzen ziren, portugaldarra ez zen beste bide batetik Moluketara iristea ezineko eginez. Austriako Leonor, Carlos I.aren ahizpa zen; badirudi Portugalgo erregeak atlasaren zeharkako hartzailea izango zen bere koinatuari "Egin iezaiozu uko Magallaesen proiektuari, zentzugabea da" esan nahi izan ziola.



Magallanes-Elcano, 1519-1522. Munduari 1. Bira

Erakusketa Arabako Campuseko Bibliotekan

2022ko Ekainatik abendura arte